**BERBETAN** JAVIER IDARRAGA, TXANKAKUA MERKATARI ELKARTEKO PRESIDENTEA
**GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN **KULTURA** XIBEROAREN ALDEKO KULTUR EKITALDIAK

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko irailaren 20a/X. urtea/417. zkia




KULTUR ETXEKO EGUZKI ERLOJUA MUNDUKO EZAGUNENEN ARTEAN

# 1651tik eguzki indarrez dabilen erlojua

"Ezta munduan gauza preziatuagorik denbora baiño" (Esaera zaharra)

EvSkarJ txiboa baGla zuretzat,
Si el Eurkera te sue"z a chi"0,

Ni txinin, ricirrin,
bdrrinduila, dulai...



IDAL iijI111.



...y el e.skera te ionava bien,
eta evskava ze.rea

IIAL

# 2002 - 2003

## Euskara Ikastaroak

**ESKAINTZA**
EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZEA eta EGA,
HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**IRAUPENA**
Iraila-ekaina.

**ERRITMOAK**
Si ordu egunean.
Ordu eta erdi egunean.

**IKASTARO BEREZIAK**
Gurasoak, erakunde finantzarioak, enpresak,
EGA ikastaroa Iarunbatetan, mintzapraktika ikastaroak.

**ORDENAGAILU GELA**
HEZINET, ordenagailu bidezko programa osagarri.

/2 P=n1,.,e,, laguntzaz

**MATRIKULALDIA**
Irailaren 2tik - 27ra.
16 urtetik gorakoentzat / Beka Sistema. Galde ezazu!!!

**BULEGO ORDUTEGIA**
ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30
MUTRIKU: 09:30-12:30 / 15:30-19:30
DEBA: 10:00-12:30 /16:00-19:30

IPA1 EVSKALIEGIAK

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEII MANKOMUNITATEA
Nafarrea Enparantza, 2- Tel.: 943 74 27 31 - ELGOIBAR
elgoi.euskai@udal gipuzkaa.net
Txurruka Tenienteen etorbIdea, 5 - MUTRIKU euskinutriku©udal.gipuzkoa.net
Ifar-kalea. 12 - DEBA euskaltegi@deba.net

www.udaleuskaltegiak.net

---

**Beiauste9i Baserria**

JATETVEA



**Ondo pasa joink!**

# SAN MIGEL JAIAK

*Azoto eho oloc maoko laietod,*
*000liaatzeise4ituateo.* Iimiotzest *bitueois*
limott *tieketi4 koadtaa*

*Aperitiboa*
*44-»*

*Ahate foiearen moussea*
*Gulen entsalada epela*
*Ganba handiak piantxan*
***
*Arrain brotxera*
***
*Solomilloa Pedro Ximenez erara*
***
*Trufa tarta gazta eta ezti izozkiarekin*
***
Kafea

*32,50 € + BEza (edariak aparte)*

San Migel Gaina z/g - Tei. 943 74 31 02



## Negargarria, lotsagarria...

Astelehena. Lagun baten osabak begia galdu duela jakin berri dut. Jose Migelek 44 urte ditu, eta Espainiatik lanera etorritako familia bateko semea da: etorkina. Ez du euskaraz ikasi, baina abertzalea da, Euskal Herria maite du, eta euskal herritarron eskubideen defentsan larunbateko manifestaldira joan zen.

Jose Migeli Eusko Jaurlaritzak "borondate onez" barkamena eskatu dio: Ja! Pilotakada espainiarra zen eta, Imazek baino (non sartu da Ibarretxe jauna?), barkamena Espainiako gobernuak eskatu beharko zion, haren izenean eta haren aginduak betez lehertu baitiote begia. Franko dakusat hilobitik haren oinordekoen lana txalotzen: euskaldunak (?) euskaldunak jipoitzen. Zoratu egin dira! Ez dut ezer ulertzen! –zioen nire alboan PNVren afi 1 a tu batek manifestaldian.

Borondate onez joan ez ziren bakarrak Zabalburu plazan kokatutako 20 beltz furgoneta eta 2 ur tankeak izan ziren, eta begi lehertua, haien, eta bidali zituztenen "borondate ona"-ren seinale da.

Eta esaerak dioen bezala, alferrik da ura joan eta gero presa egitea. Alferrik dira orain justifikazioak, barkamenak edo burua zuritzeko manipulazioak. Anaia-arrebei bizkarra eman izanaren sentimendua -inporta bazaizue behintzat-, Jose Migelen samina bestekoa izatea opa dizuet, zuen eta haren artean alderik badago ere: inork ezin dio Jose Migeli begia itzuli...

Lorea Perez de Albeniz

Gr (I) O O N Ca)



## Iritzirik gabeko zutabea

Eskuarki iritzia azaltzeko erabili ohi dugu tarte hau. Eskertzekoa BARRENek eskaintzen digun aukera. Oraingo honetan, ordea, ez natorkizue inolako iritzirik kaleratzera. Hainbat gai ditugu kalean zertaz hitz egin ahal izatekoak. Ni neu ere ermea naiz ikusi, entzun eta irakurtzen dudanaz usteak izatera. Ez nator bada, inolako hausnarketa sakon batekin zuek aspertzera.

Horrela, zerbaitetaz aritzekotan, nire gauzetaz mintzatu ahal izango nintzateke, baina ziur aski egozentrikotzat joko nindukezue. Besteetaz arituz gero txutxumutxero bihurtuko nintzateke. Egoera politikoaz ere hitz egiteari ekin diezaioket, baina kokoteraino zaudetela somatzen dut. Zer esanik ez 11S-az. Saltsa horietako ipuinak badakarzkit, zutabe hau sekula santan gehiago irakurriko ez diezadazuen arriskuan jarriko nuke nire burua. Beraz, zertaz aritu behar naizen erabakitzeko garunak ondo estutu eta gero Morkaiko M.E. txalotzea erabaki dut. Egindako lanarengatik, jendearen erantzunarengatik eta beti ere, beharrezkoa den zorte apur horregatik. Lan administratiboaz gain, erantzun handiko irteerak antolatzen ari dira. Irteera oso interesgarriak eta bariatuak. Txalotzekoa da aurrez izandako zuzendaritzek egindako lana nola jaso eta moldatu duten gaur egungo egoerara.

Ale hau esku artean duzuenean, Frantziako Pirinioetarako bidean izango dira asteburupasa. Ni neu ere gogoak jota nengoen, baina berandu ibiltzeagatik lekurik gabe aurkitu naiz. Beraz, aldizkari hau autobusean eramango dutelakoan, balio bezate lausengu hauek datorren irteera antolatzerako orduan, lekurik izan ezean ere txokotxo bat egin diezaioten arima atsekabetu honi. Ondo ibili!

Gotzon Arrieta

P 1111

Kexak ........................................ 5
motz MotZ ........................................ 6
gehigarria ........................................ ii
kiROlAk ........................................ 20
aGenda )4

2002-IX-20

# Urruzunoren begi ezkutua

## Itzulera



Bueltatu zenean, gauzek berdin jarraitzen zutela konturatu zen. Ezer ez zela aldatu. Betikoak betiko Iekuan zeudela. Zurrumurru batzuek beste batzuei lekua laga zietela, baina bertsuak zirela. Eskaparateetako manikien arropak aldatu ziren, hori bai. Baina usoek kaka egiten segitzen zuten eta txikle pusketek lurrean mosaikoa itxuratzen zuten.

Plazan eseri zen, lasai. Zigarroa piztu eta jendeari begira geratu zen. Bizitza nola pasatzen zen ikustea atsegin zuen. Eta bidaiarik politenak ere zeukan gauzarik ederrena itzultzea zela ohartu zen, etxeratzea eta gauzek berdin jarraitzen zutela ikustea. Horrek ematen zion lasaitasuna. Zigarroa zupatu zuen eta kea begi paretik desagertu zenean ikusi zuen bere printzesa. Irribarre batekin agurtu zuen. Eta berak, pozik, irribarrea bueltatu zion. Bai, itzulera zen gauzarik ederrena.

Jasone Osoro

### GORA EUSKAL HERRIA

Pasa den larunbatean milaka eta milaka euskal hiritar elkartu ginen Bilbon, herri honen eskubide demokratikoen alde. Tartean, azkeneko hauteskundeetan boto bidez beraien konfidantza zuengan jarri zuten hainbat eta hainbat lagun. Ondorengoa denok dakigu. Jipoituak, atxilotuak, os vamos a matar hijos de puta...

Hau al da "dialogar hasta el amanecer"? Hau al da zuen bake proposamena? Hau al da Vascongadetako euskal hiritarren zerbitzura dagoen polizia? Nola da posible euskaldun batzuen lehendakariak azkeneko gertaeren aurrean (Batasunaren ilegalizazioa, egoitzen itxiera, atxilotutako azken gazteek jasandako torturak, bortxaketa) mutis gelditzea.

Aukera ezin hobea izan duzue herri honen eskubideen alde urrats bat emateko. Tamalez beste behin erakutsi duzue zuen interes partikularrak interes kolektiboen gainetik daudeIa. Edozerren aurretik jartzen dituzuela, herri hau deuseztea besterik nahi ez dutenen aginpetara jarriaz.

Jarraitu zuen hauteskundeetako kanpainetan independentzia oihukatzen, zuen botanteei, militantziari eta herri honi iruzur egiten jarraitzen duzuen bitartean.

Asier Zengotita

### ELGOIBARREN HIRU

Zaldibia-Andoaingo berriak animatu naute gai honi buruz beffidaztera. Lehenago ere zerbait idatzi nuen, baina orduko hartan ez nuen lortu hautsak harrotzerik. Zaldibia-Andoainen 36. Gudateko bi gorpu azaldu omen dira eta behar den tokira jaso. Elgoibarren eta Amesti-Juaristi inguruetan garai hartan hildako hiru gorpu daudela nioen. Hauek ez daude zulo bakar batean, zulo banatan baizik.

Garai hartan, oso garbi nekien nun lurperaturik zeuden. Gaur pinudiak direla-eta, zerbait nekezagoa izan arren, metro gutxitara hurbilduko nintzatekeela uste dut.

Bide batez esan dezadan, gorpu hauek lehenengoz axal xamar lurperatu zituztela eta inguruetako txakurrek bistaratu zituztela eta gorpuak ikusi ere egin genituela. Hori gertaturik, garai hartako albaitari Sebastian Ubiriak kexa eman ondoren, berriz lurperatuagotu zituztela eta harrez gero, hantxe daudela bakarti eta ahazturik.

Elgoibarren ez ote dugu hiru gorpu hauei tratu duina ematea lortuko? Ni neu prest nengoke laguntzeko.

F.E.
ENA: 0028836-G

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943744112
Publizitatea:
is 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
batren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
AGGRARATZAILEA
Elgoibarko Izarm

LAnurfrzAxxx Elgotarko Lleala KOOADMATZAILEA Ainhoa Andonegn ZUZEGD4111.4 Asier OrGEla KIZETARIA irau AgirrEaEaldni, PUE LIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jalune Uranue AblilNISTRAZIOA Amala RCEIGgEZ GERENIZA Jon Pali Ulguen KOLABORATZALEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello liendizabal, Juan M. Elustondo, Alhedo Ansualegi, Edume Bilbae, Gotzon Arrieta, Lorea Peroz de Albeniz, Jokin Marlinez, Monise Arregi, Juando Gorosliza, Ainhoa Andonsgi, Kokoe K.E. eta Utruzuno L. 7.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garateren liburutik INPRIMATIGIA GerGI KOOp. TIRADA 4.025 als LEGE GOlibAlLUA SS-1.038/92 ISSN 11391855

ea EIG01131110,11MA

*Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritako Kultura Sailak da Foru Afrhudiak diruz lagundu ko aldizkaria.*

kutxa

1DANOBAT XERAIIMMI. GOITI GRuPob.NoWI gplairra

## KEXAK



• Emakume batek, Madalako parkeko iturriek ura presio askorekin botatzen dutela adierazi digu: "bi ilurri daude, eta biek presio askorekin botatzen dute ura. Gainera, iturrien beheko aldea urez beteta dago aspalditik, eta umeak busti egiten dira".



▲

• Neska batek telefono kabinak erabat ahaztuta daudela adierazi digu. "Telefonoz deitu behar nuen, eta hiru kabina izorratuta aurkitu nituen. Jende askok mobila dauka, baina oraindik bagara batzuk kabinatik deitzen dugunak. Beraz, telefono kabinak konpontzeaz arduratzen direnek egin dezatela bere lana",



• Emakume batek Madalako etxeen promotorak bertan daukan kioskoak, ingurunea erabat zatartzen duela adierazi digu: "etxebizitzak amaituta daude dagoeneko, eta kiosko prefabrikatu honek terreno publikoa desitxuratzen du, gainera promotorak berak badauka beste lokal bat. Beraz, bada ordua kioskoa hortik kentzeko".





# Nultur Etxeko eguzki erlojua munduko ezagunenen artean dage

## Adituen esanetan Espainian 3.000 daude baina asko egoera kaskarrean

Herritar gehienok jakin badakigu Altzola Dorretxean eguzki erlojua dagoela, baina inor gutxik jakingo du munduan egoera onean gordetzen diren eguzki erloju esanguratsuenen artean kokatzen dela. Horrela dio E1 Norte de Castilla egunkariko erreportaje batek. Egunkari hori Carlos Gonzalez elgoibartarrak helarazi digu Barrenera bitxikeria modura.

Izan ere, eguzki erlojuek garai batean zuten praktikotasuna galdu egin dute, kutsu artistiko edo dekoratibo bitxia hartuz. Espainian 3.000 eguzki erloju inguru katalogatu dituzte eta asko egoera kaskarrean daude. Gainera, mota honetako erlojuen kopurua probintzien arabera aldatu egiten da, Euskal Herrian esaterako, 25 kilometroko tartean eguzki erloju bat aurki daiteke, eta hori beste lurralde batzuekin konparatuz, oso kopuru txikia da.

Elgoibarko eguzki erlojuari buruz ezer gutxi dakigu. Dorretxeko harmarriaren alde banatan erloju bat dago 1651 datarekin. Eraikina berritu zutenean mantendu zuten erlojua baina herriko historialariek ere ez omen dute eguzki erlojuari buruzko informaziorik.






*El Norte de Castilla egunkariko erreportajearen arabera, Espainian 3.000 eguzki erloju daude, tartean Elgoibarkoa.*

**Zehaztasuna**

Eguzkia beti izan da erreferentzia puntu eta oraindik izango da Kultur Etxeko eguzki erlojuari kasu egingo dionik. Hala ere, adituen esanetan ordulari atomikoak dira zehatzenak. Eguzki erlojuek badute eragozpen bat: Lurra erabat borobila ez denez, erlojuak 15 minutura arteko aurrerapena edo atzerapena izan dezake.

Elgoibarren beraz, Insbruck (Austria), Lloydminster (Kanada), Jaipur (India) edo Zaandam (Holanda) bezalako lekuetan dauden eguzki erlojuekin pareka dezakegu herri erdian daukaguna.

# Altzolako Hijas del Divino Celo Institutua botako dute etxeak egiteko

## Etxeez gain garajeak ere eraikiko dituzte Bainuetxeko Zumardian

Altzolako Bainuetxeko Zutnardian dago XX. mende hasieran eraikitako Hijas del Divino Celo Institutua. Bertan ez da inor bizi eta azken 4 0 urteotan abandonatuta dago. Orain botatzen ari dira eta bertan etxebizitzak eraikiko dituzte.

**16 etxe**

Guztira 1655,29 $m^2$ko azalera du lurrak eta beheko solairuaren gainean lau pisu egingo dituzte. Beheko solairuan portala eta garajeak egongo dira eta beherantz beste hiru pisu egingo dituzte hauentzat. Gainontzekoetan, berriz, bi edo hiru logelako 16 etxebizitza eraikiko dituzte. Gelarik gehienak kanpoko aldera irekita egongo dira, hainbat komun izan ezik.



*Jadanik hasi dira bainuetxe aldameneko eraikina botatzen.*



## Bi perretxiko erraldoi topatu dituzte San Lorentzon

Joan den irailaren 10ean Antxon Osoro elgoibartarrak bi astoputz erraldoi aurkitu zituen San Lorentzoko Agarre baserriko zelaietan. Mendi buelta bat ematera atera zen eta zelaian bi puntu zuri handi ikusita gerturatu zenean, sekulalco sorpresa hartu zuen Osorok. 80 eta 70 zentimetroko diametrodun bi perretxiko handi aurkitu zituen. Tamalez, ekaina eta udazkena bitartean hazten diren perretxiko hauek ikusgarriak izan arren ez dira jangarriak. "Sekula ez naban holako perretxiko haundirik ikusi. Astopu tzak ziala jakin banakixan eta ez diala jaten baitxa ere, baina bitxikerixa moduan hartzia eta neurtzia pentsau naban".

## Informatikapi buruzko zalantzak argitzeko kontsulta telefonoa jarri du Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak, Euskadi Informazioaren Gizartean plangintzaren baitan Kzlaguntza programa jarri du martxan. Ekipoak erosteko emandako laguntzek eta guneek izandako arrakasta ikusita erabaki dute egitasmo honekin hastea. Erabiltzaileei teIefono bidez informatikari buruzko zalantzak argituko dizkiete edo gertuen dauden adituengana bidaliko dituzte dudak galdetzera. Oraingoz Denbabarroan egingo dute proba. Beraz, informatikari buruzko zalantzarik izanez gero, deitu honako telefonora: 902 54 45 45.



## Gpipearen aurkako kanpaina urriaren 31pa arte izango da

Gripea gaixotasun infekziosoa izanik arazoak eragin ditzake. Beraz, gaitzari aurrea hartzeko txertatzea gomendatu dute Osasun Zentrotik. Batez ere, 65 urtetik gorakoek, diabetikoek eta biriketako, bihotzeko, gibeleko edo giltzurrunetako gaixotasun kronikoren bat dutenek hartu behar dute txertoa. Kanpaina urriaren 31ra bitartean luzatuko da. Txertoa hartzeko aurrez ordua eskatu behar da Osasun Zentroan.

## Olasoko hileppitik gorpu hondakinak aterako dituzte

Orain dela hamar urte edo lehenago hil eta Olason lurperatutako gorpu hondakinak atera egingo dituzte. Hildakoen senideen bila ibili ostean, aurkitu ez dituztenei zera jakinarazi nahi diete: Gorpu hondakinekin zer egin jakiteko Gizarte Prestakuntza Sailarekin jarri behar dira harremanetan urriaren 4a baino lehen. Izan ere, bertan daude ateratako gorpu hondakinen zerrendak.






# noio ALDATU diren gauzak!

2002-IX-20

*(Udal Liburtaegiko araiboko irudia)*



1972. urte ingurukoa da argazkia. Ikusten den bezala asko aldatu da ingurune hau. Santa Klara kalea izandakoa ikusten da bertan. Urteak pasa ahala errepide berria egin zuten bertan. Argazkian ikusten dira gaur egun ere, inguru honetan dauden etxebizitza batzuk: Perratokiko etxea, Urkiolaren aroztegia eta Zubi Ondo xake elkartea. Argazkian ikusten den bezala, garai hartako autoak ere dotoreak ziren. Gaur egun baino auto gutxiago ibiltzen zen errepide honetan, eta jendea lasai asko ibiltzen zen bertan paseatzen. Argazkiaren eskuin aldean ikusten diren sasiak zeuden tokian gaur egun autobus geltokia dago.



2002. urtean, ikusten dugun argazkia, aurrekoarekin alderatuta oso ezberdina da. Nork esango Iuke garai hartako paraje hau ikusita, honelako etxebizitza dotoreak agertuko zirenik? Mugimendu handiko tokia da ingurune hau. Autoak barra-barra ibiltzen dira, eta autobus ugarik bertan dauka geltokia. Beraz, oso arraroa da jendea errepidean pasiatzen ikustea. Zubi-Ondo Elkartea ere tokiz aldatuta dago, erabat berrituta eta oso dotore Jausoro Plazan ikus dezakegu orain.

Juanito Gorostiza








*Zentro Komertzial handien hedapena zela eta, Txankakua Merkatari Elkartea soriu zen duela 10 urfe. Herriko komertzio txikiei laguntzea da elkartearen helburua, eta 51 bazkide diiu dagoeneka. 8ŕhar, irailak 21, Plaza Handian egongo dira goizeko 7 1:00etatik iluntzeko 19:30ak arte. Mota guztietako dendak hartuko dute parte festa harretarr, efa denboraldi berriko produktu guztiak eskainiko dituzte. Honekin botera, 300 eurotako bost sari zozketatuko dituzte, baina boleto irabaziea bertan ergertu behar da, bestela ez du baliorik izango. Javier 1clarragak, Txankakuako presidenteak azaldu dizkigu festa honen efa elkartearen nondik norako guztiak.*

# "Komertzio txikiek bizia ematen diote herriari eta denon artean

JAVIER

• **Zer deia-eta antolatu duzue festa hau?** laz egin genuen lehenengo aldiz, eta oso ondo atera zen. Goizez bakarrik egin genuen festa, eta emaitza ikusirik, aurten egun osoan zehar egongo gara Plaza Handian. Gure asmoa jendea animatzea da. Elgoibarren gelditzea nahi dugu, gure festa ikustea, hor gaudela jakitea. Gaur egun zentro komertzial handietara joateko moda izugarria dago, eta horrek herrietako denda txikiei sekulako kaltea egiten die. Elgoibarko denda txikietan erostera animatu nahi dugu jendea. Izan ere, oso garrantzitsua da herrietako denda txikiak bizirik mantentzea.

**"Produktuak erakutsi eta jendea denda txikietan erostera animatu nahi dugu "**

• **Zer aurkituko dugu festa honetan?** Mota guztietako komertzioek hartuko dute parte: okindegiek, bidaia agentziek, moda dendek, liburudendek, argazkidendek, lora-dendek, dekorazio dendek, zapata-dendek, eta baita janari denda batzuek ere. Denetarik egongo da. Bakoitzak bere produktuak erakutsiko ditu. Badakigu oso zaila dela jendeak bertan erostea, baina gure asmoa, produktuak erakutsi, eta jendea denda txikietan erostera animatzea da. Honetaz gain, jan eta edaneko txozna bat egongo da.

• **Etxeko gaztetxoek izango al dute lekurik festa honetan?** Adin guztietako jendearentzat antolatu dugu festa. Haurrentzako parke eta gaztelu puzgarriak egongo dira, eta baita herriko kaleetan zehar ibiliko den trena ere. Goizean zirkuito bat egingo du, eta arratsaldean beste bat.

■ **Denda txikiak betirako desagertzeko beldur al zarete?** Zentro komertzial handiek min handia egin digute komertzio txikiei. Azken berrien arabera, 1500 denda txiki desagertu dira herri desberdinetan. Hala ere, ez dugu uste zentro komertzial handi gehiago eraikiko dutenik. Frantzian denda txiki guztiak desagertu dira, eta Gobernuak buelta eman nahi dio kontu honi. Eusko Jaurlaritza ere konturatu da arazoaz, eta hemen gauza bera gertatu ez dadin, orain laguntzak eskaintzen dizkigu. Larunbateko festa guk antolatu dugu, baina Eusko Jaurlaritza eta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

• **Zer egin daiteke komertzio handien aurrean?** Jendea animatu eta kontzientziatu egin behar da, denda txikiak beharrezkoak direla esanez. Oso erosoa da autoa hartu eta Zentro komertzial handi hatera joatea erosketak egitera, baina egunen batean denok izango dugu beheko dendan erosketak egiteko beharra. Ahalegin bat egin behar dugu denon artean, azken finean, gu geu baikara denda txikiak ixten ditugunalc. Komertzio txikiek bizia ematen diote herriari, eta denon artean zaindu behar ditugu.

• **Zer balorazio egiten du Txankakuak bere sorreratik gaur arterainoko ibilbideaz?** Balorazio positiboa, dudarik gabe. Jende askok agian ez du jakingo zer egiten dugun, baina denda txikien bizi iraupenerako lan positiboa egiten ari gara. Honelako elkarte bat derrigorrez egon behar da herri bakoitzean.

### Bikote ingeles hatek txip bat jarri dio alberi "non dabilen jakiteko"

# SIDEZKOA BEG1TANT2EN AL UMEEI *TNIP* BAT THERTATZEA, NON DAUDEN JAKITEKO?



### MIREN MUGERZA

13 urte, ikaslea

Ondo iruditzen jata. Umia txikixa danian, norbaitxek bahitzen badau, nun dauan jakiteko ondo dao. Neri ez litzaidake gustauko nere amak uneoro nun nauan jakitzia, haina umia txikixa danian ondo dao.

### SONIA BATISTA

27 urte, etxekoandrea

Sekulako astakeria iruditzen zait. Pensona bakoitzak bere momentu intimoak dauzka, eta norberak bere askatasuna behar du, ume zein nagusi izan. Pertsonak ezin dira txip batekin kontrolatu.





### NEREA CAÑUETO

12 urte, ikaslea

Ondo iruditzen jata, baina gu haundiegixak gera dagoeneko. Ume txikixeri ipintzia ondo dao. Momentu guztian nun gahizen jakitzia ez dao ondo, baina nere amak ere, ni kontrolatzen nau, eta txikixauak bihar gehixo dake.

### JULIANA JIMENEZ

39 urte, dendaria

Adinaren arabera ipiniko nuke. Umeak bakarrik moldatzen hasten direnean, ondo dago non dabilen jakitea. Adinean aurrera doala, pertsona arduratsua bada, ez dauka *t.vip* beharrik, baina batzueri ondo etorriko litzaieke.





### JOANES RODRIGUEZ

15 urte, ikaslea

Ez jata hidezkua iruditzen. Horrekin gaztien intimitatia apurtzen da. Gurasuek ezin dabe jakin euren semiak eitxen ditxttzten gauza denak, eta beti kontrolauta eukitzia ezinezkua da.

### EUGENIO MEDIAVILLA

51 urte, mekanikoa

Normalean txakurrei jartzen zaie, haina umea apur bat kontrolatzeko baldin bada, ondo iruditzen zait. Haurraren segurtasunerako egiten den heinean, ondo ikusten dut,



IKASTARO TEORIKO INTENTS1BOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %1OEKO BEHERAPENA
Itiodierlo 014.0to apleta, tenta 6 ostevitelefto
LARRAÑAGA
AuToEsKoIA
Tel: 943 74 10 11

GAZTE GEHIGARRIA · 2002ko irailaren 20a. X urtea/417. zkia

# Gaztea BaRRen

a NAIZ



## Semaforoa proiektua:

# Argi berdea irudimenari

entzun

## (FAT BLACK PUSSY CAT'

### FIVE HORSE JONSON

Gasteizko Azkena aretoak 3 egunetako rock jaialdi indartsua antolatu zuen asteburu-rako. Rockaren adar ezberdinetako tal-deak izan ziren entzungai: Mudhoney, Raging Slab, Superstickers, Sex Mu-seum... eta Five Horse Johnson. Ohio-ko laukoteak 1996an argitaratu zuen estreinako lana, "Blues for Henry..."". Diskoa Hines Farm-en grabatu zuten, John Lee Hooker edota T-Bone Walker bezalako bluesmanek gmbatu zuten estudioan. Banda estatu batuarrak ez du hlues klasikoa jorratzen. Deltako bluesmanen eragina nabarmena da. Musika askoz ere indartsu eta gogorra-goa da. Askok heavy&bluesa bezala bataiatu dute estiloa. Ez zaie arrazoirik falta. Estudioko grabaketak xamutTak dira. Zuzenean. bluesaren eragin han-dia duen heavy taldea dirudi. Eric Oblander abeslari eta harmonika joica-ren indarra izugarria da. Bere gorputz handia eta txima luze horiak gogor as-tindu zititen, show ona eskainiz. Ema-naldian 99ko "Fat hlaek pussy cat" lio-netako abesti dezente entzun genituen. Hori bai, era bortitz eta basatia2oan.

Five Horse Johnson ez da tal-de ezaguna hlues zaleen artean. Zer-bait berria entzuteko aukera paregabea da ateak klasikoan isten ez dituen hlues eta rock zalearentzat.




Ion Gurrutxaga Arakistain

## MARKEL BERGARA, futbolaria

# "Espainiako sElEkzivan jokala

**FUTBOLARIA DA MARKEL BERGARA. ESPAINIAKO SE-LEKZIOAREKIN IZAN BERRI DA ENTRENATZEN MA-DRILEN ETA JOAN DEN ASTEAN HUESCAN FRAN-TZIAKO SELEKZIOAREN AURKA JOKATU BEHARREKO PART1DURA ABIATU BAINO LEHEN, BERAREKIN IZAN GINEN BERBETAN. FUTBOLA DU AFIZIO NAGUSIA ETA ZUBIETAKO ENTRENAMENDUEK UZTEN DIOTE-NEAN BATXILERGOKO IKASKETETAN SAIATZEN DA 16 URTEKO GAZTE ELGOIBARTARRA, FUTBOLEKO ETOR-KIZUNEKO IZARRA.**

Noiztik ari zara futbolean jokatzen?

Oin dala 5 edo 6 urte hasi nintzan, ixa hasieratik Rea-lian. Oin jubenilen taldian jokatzen dot oborezko mai-lan.

Espainiako selekzioarekin entrenatzen izan zara orain gutxi. Zer moduzko esperientzia izan da?

Iaz ere egon nintzan bai en-trenatzen eta baitxa parti-duak jokatzen ere, Portuga-len. Oin entrenamientuak euki ditxut Madrilen eta ge-ro Huescan Frantziako se-lekzivan kontrako partidua. Jokalari onak inguruan euki-txa gustura jokatzeko auke-ria euki dot, eta esperientzia politxa izan da. He-mengo giruakin konparauta diferentia da, hala ere ona.



# lixEk asko zaintzEn dabE itxuria"

Espainiako futbol selekzivan jokalarixek itxuria asko zaintzen dabe; ilia, koilarrak, botak... Lehen ere egonda nauan selekzivan eta euskaldunok ondo hartzen gaitxue, ez dogu politikari buruz berba eitxen eta kitto.

**Nolatan aukeratu zaituzte Espainiako selekzioarako?**

Euskadiko selekzivakin jokatzen ikusi ninduten eta gero pruebak eitxera jun nintzan. Orduan selekzionau ninduten eta gero entrenamientuetan ikusi naute jokatzen.

## BALOIAK KANPORA

Nori aterako zenioke txartel lorria?

Zein egoeratan sentitzen zara jokoz kanpo?

Jende eze .agunarenaurrean,,

Xalii Alonso ala Zidane?

ane rez onaua

Alonso Realian asko Llustatzen jata,

Bizitzan sartu duztin golik onena?

Realean jokaizen hasi nintzanekoa.

Belar naturalezkoa baina zelaia txikia bada.

**Gazteen artean futbolak beste kirolek haino arrakasta handiagoa du. Zer dela-eta?**

Lagun artian jokatzeko deportia dalako eta baloi bat nahikua dalako jokatzeko. Ni futbolian jokatu aunetik pelotan ere ibiltzen nintzan baina Realian hasi nintzanian laga ein bihar izan naban pelotia.

**Futbolak zure adineko gazteek egiten dituzten gauzetan aritzeko denborarik lagatzen al dizu?**

Astian zihar egun bakarra dakat bre eta arratsaldetan ezin izaten dot kalera urten. Zapatuetan normal ateratzen naiz, piska bat zaintzen, baina askorik ere ez. Gainera, domekan partidua badakat ezin izaten dot urten. Futbolaz aparte ez dakat beste zaletasunik, eta moldatzen naiz futbola eta lagun girua konpajinatzeko,

**Futbolariok asko Iigatzen duzuela esan ohi da. Egia al da hori?**

Nik ez dot behintzat ezer igarri. Badao jendia Realian jokatzen dotelako ezautzen nauana, baina honegatik ez dot gehixao ligatzen.

**Lagun artean futbolari buruz hitz egiten al duzue?**

Batzutan bai. Egunero entrenatzera jutia sakrifkaua dala esaten diate. Lagunekin futbolian jokatzia ere gustatzen jata, ez naiz errekreuetan geldi egotekua ekipuan kanpuan lasai ibiltzeko esaten diguten arren.

**Realeko harrobiko jokalaria izanik, inoiz amestuko zenuen lehen taldean jokatzea, ezta?**

Amestu bai, baina badakit oso zaila dala. Jende asko pasatzen da baina gutxi igotzen dia goiko ekipora. Futbolian gazte askok jokatzen dau eta konpetentzia haundixa dao.

**Harrobian futbolean jokatzen ikasteaz gain, besterik ikasten al duzue?**

Janarixa asko zaindu bihar dogu, partiduen aurretik pastia janez, adibidez. Gainera, hamabost egunian behin grasak neurtzen dizkigute. Bestalde, bakoitzak bere buruakin konfidantza izateko esaten digute.

## "GIZA FAKTOREA'

GREENE

raham Greene idazlea eleberrigile bezala nabarmendu zen. Beharbada. bere nobela ezagunena "The third man" ("Hirugarren gizona") da, Carol Reed zuzendariak izenhuru berberarekin zinemarako egokitu zuena. Gurean Ihaizabal argitaletxearen, "Giza faktorea" eleberria dauk.agu irakurgai.

"Giza faktorea" espioien eleberria da, haina ez da espioien ohiko eleberria. Nohela honetan gertakarien suspentsea badagoen arren, akzioa ez da garrantzitsuena. Idazleak Ingalaterrako zerbitzu sekretuetako pertsonaiengan janzen du arreta; idazleztri pertsonak interesatzen zaizkio gehiago. Horrela, Graham Greenek gai ezberdinak jorratzen ditu haien bitartez: gorrotoa, maitasuna. traizioa... Zenbait unetan, agian, liburua erritmo motelekoa izan daiteke irakurlearentzat baina ez dago ukatzerik "Giza faktorea" eleberrigile handi baten emaitza ona dela.




Jon Eugi

BaRREN

GAIA

# Semaforoa P



**Eibarko ArmEria Eskolak DBHko ikasleEntzako lEhiaketa tEknologikoa antolatu zuEn iaz estrainekoz. LEhiakEta hau, Deba ballara. lea Artibai, DurangaldEa eta Urolako DErrigorrEzko BigarrEn HEzikEtako ikaslEEi zuzenduta zegoen. Lehenengo saria R5emaforoa" izEneko proiektuak Eskuratu zuen. ProiEktu hau Elgoibarko FlErri Institutuko Ander BonaEtxea, OiEr Contreras eta JaviEr Barrientos 16 urtetako IkaslEEk aurkEztu zuten, Ander Alkorta irakaslEarEn zuzEndaritzapEan.**

Oier Contreras eta Ander Bonaetxea Batxilergo Teknologiko ikasketak egiten ari dira Herri Institutuan eta Javier Barrientos, berriz, Kan¯ozeria. Zirkuito elektriko bat garatzeko proiektu bat egin behar zutela esan zieten iaz Teknologia irakasgaian eta semaforo bat egitea pentsatu zuten. "Zirkuitu elektroniko bat garatu heharra geneukanez, kalean edo errepidean ikusten diren semaforo horietako bat egitea erabaki genuen. Izan ere, betidanik eduki dugu semaforo baten barne funtzionamendua ezagutzeko kuriosidadea".

**"Gauzak praktikan jartzen direnean errazago ikusi eta ulertien dira"**







**>> ikasle txartela,
AtErpEkidE
(albErgista) txartela,
IrakasiE txartEla
GaztE txartela**

bErtan Egingo dizugul

ga.zte
informaz ioa

KULTUR ETXEKO 2. SOLAIRUA • NAFARROA PLAZA, 3• Tel. 943 741 461 • E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehena asteartea - osteguna - ostirala: 17:00etatik-20:00etara - Larunbata: 10:00etatik - 14:00etara

# PROIEKTUA

Gelakide guztiek egin zituzten proiektuak, baina "semaforoa" proiektua bakarrik aurkeztu zuten Eibarko Armeria Eskolak DBHko ikasleentzako antolatu zuen lehiaketara.

## "Betidanik eduki dugu semaforo baten barne funtzionamendua ezagutzeko kuriosidadea"

Lehiaketa hau, horrelako ezaugarriekin Euskal Autonomi Erkidegoan DBHko ikasleentzat antolatzen den Iehenengoa da, eta bere helburuak, hezkuntza ziklo honetako azken etapañ formazio teknologikoa bultzatzea, talde lana eta irudimen handikO ideiak sustatzea dira. Ander Bonaetxeak azaldu digunez, "irudimena mordo bat lantzen da. Semaforoa nola egin erabakitzeko eta behanezko materiala lortzeko imaginazio handia behar da. Formazio teknologikoari dagokionez, teoria hutsean geratu beharrean, gauzak praktikan jartzen direnean errazago ikusi eta ulertzen dira".



**Zertan datza "semaforoa proiektuak?**
Motor eta erreduktore txiki baten bidez, pizte gailuari eraginda, mekanismo batek semaforo bat martxan jartzen du.

Zer izan da zailena?
Zailena argi bakoitza denbora tarte zehatz batean piztuta mantentzea izan da, hau da, 5 segundu argi berdea, beste 5 gorria, etab.

**Nola egin pentsatzetik gero egitera alde handia al dago?**
**Bai.** Batez ere hasiera izan zen zailena, ez baigenekien nondik hasi.

**Zenbat denbora egin zenuten proiektua aurrea ateratzen?**
Bi hilabete inguru.

**Zer material erabili dituzue?**
Egurra, pringles kaxa huts bat, kartoia, gomak, plastikoak.... edozeinek topatu ditzakeen materialak betiere.

---) Epaimahaiak, bereziki proiektuaren garapen maila, eta irudimen eta benetako aplikazio ahalmena baloratu zituen. Lehenengo saria 1.500 euro, garaikurra eta diploma bana izan ziren. Hiru ikasleek azaldu digutenez, 50 euro jaso ditu bakoitzak eta gainontzekoa ikastetxeak jasoko du materiale informatiko moduan. Bestalde, ustekabe handia izan zela lehen saria irabaztea aitortu digute. "Ez genuen espero eta sorpresa handia hartu genuen lehen saria eman zigutenean" esan digu Oierrek. Etorkizunari begira hirurek oso argi dute hartu beharreko bidea. Oierrek eta Anderrek informatika egin nahi dute eta Javik, berriz, autoen mundura bideratu nahi du bere etorkizuna, karrozeriara, hain zuzen ere.



# lots@gabE

*Parte hartu nahi Ixtduzue cle■tu ecto etorri BARRENera. Animatut*

@ Zer egiteko aprobetxatuko zenituzke "spidermanen" botereak?
Norbaiti mendekua hartzeko.

@ Sarri errepikatzen zaizun anietsik?
Amets asko eitxen dot.

@ Eta esna egiten duzunik?
Jaiegun gehixao eukitzia.

@ Piercina ipintzekotan nun?
Ezpain azpixan jartzekotan nabil.

@ Eta mutil batengan non ematen dizu morbo gehiago?
Ezpainian edo mingainian.

@ Esaidazu piropo bat.
Piropoak bakarka esaten dia.

@ Noiz izan zen tomate bat baino gorriago jarri zinen azkena?
Ontxe, elkarrizketa hau eitxen ari geran momentuan.

@ Mutil bat konkistatzeko?
a. Afari erromantiko bat
b. Rock kontzertu batetarako bi sarrera
c. *Kondoi kaxa bat praketako poltsikoan bistarazi*

@ Joango al zinateke "Bexameia"ra mutil bila?
Ezta pentsau ere. Ligatzeko hobe inork ikusten ez zaitxun lekuan.

@ Ba al dakizu janariren bat prestatzen?
Ez dakit ezer eitxen, gurasuen kontura bizi naiz. Janarixa erre eingo nuke.

@ Zerk aspertzen zaitu?
Derrigortuta irakurtziak, edo interesatzen ez jatan gauzeri buruz hitzegitiak.

@ Joango zinateke iragarle batengana?
Ez, gezurra besterik ez dabe esaten.

@ Zer egingo zenuke hiru eguneko bizia emango balizute?
Juerga haundi bat bota.

@ Ezingo zinateke bizi ......gahe.
a. Osasunik
b. Maitasunik
c. *Dirurik*

@ Ezagutzen duzun pertsona interesgarri bat?
Asko, zaila da bakarra aukeratzia.

@ Eta ezagutu nahiko zenukeena?
Aitor Ocio, Athletic-eko jokalaria.

@ Zer daukazu poltsikoan?
Lagun baten dirua.




## LEHIOKETOas m atu LBJRU BATeskuratu

HILABETE HONETAN "ARREBA TXIKI BAT DUT, ETA ZER?", J.M. OLAIZOLAREN LIBURUA ESKURATZEKO HONAKO GALDERA HONI ZUZEN ERANTZUR BEHAR DIOZU:

**PIOLO 1ZENO DUELO GUTXI GOZTETX0E1 ZUZENDUTOKO 1.111301110 1DOTII NEN IMILE ELGOIBORTORRO1e**




2002-IX-20

## Handia izandakoan...

# mEkanikoa





**JULEN LARRINAGA**

*Batxilergo ikasketak amaitu ostean, unibertsitatera joaten dira batzuk, Julen Larrinaga inarkiñarrak, ordea, argi zeukan bere bidea beste bat zela. Txiki-txikitatik autoak ditu gustuko, beraz, autoinozio ikasketak egitea aukeratu du.*

**Zer dela-eta hasi zinen automozioa ikasten?**

Ikastea ez zait asko gustatzen, eta banekien unibertsitatera ez nintzela joango. Batxilergoko bigarren maila errepikatu egin behar izan nuen, eta orduan hartu nuen erabakia. Betidanik gustatu izan zaizkit autoak, beraz, Elgoibarrera etorri nintzen batxilergoa bukatu eta automozioa ikastera.

**Zertan datza modulu hau?**

Kotxe bat konpontzeko behar den guztia ikasten da. Karrozeria, txapa, pintura, elektrizitatea, mekanika... Lehenengo teoria ikasten da, eta gero eskolako tailerrean praktikak egiten ditugu. Bigarren ikasturtean benetako enpresetan egiten dira praktikak.

**Zer moduz hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo. Jendea oso jatorra da, eta irakasleekin ere oso ondo konpontzen naiz. Markiñan ikasle guztiek selektibitatea egiten dute, eta giroa oso desberdina da.

**Espero zenuen bezalakoa al da moduloa?**

Bai. Teoria asko erakusten digute, baina ikasten duguna gero praktikan jartzen dugu, gauzak logika bidez ikasten dira. Azterketa teorikoak izaten ditugu, baina praktikak eta jarrera ere kontuan hartzen dira.

**Zertan egin daiteke lan ikasketa hauek amaitu ostean?**

Gehienek mekaniko bezala egiten dute lan. Niri ere mekaniko izatea gustatuko litzaidake, lan asko dago mundu honetan, eta asko kobratzen da gainera. Bestela perito moduan ere lan egin daiteke aseguru etxeetan, istripua izan duten autoen kalteak tasatzen, eta irakasle ere sartzen dira beste batzuk.

**Mutilen mundua al da automozioa?**

19 gaude klasean eta neska bakarra dago. Erdi mailako zikloan badabiltza gehiago, baina gutxi dira. Neskak nahiago dute beste zerbait ikastea.

**Animatuko al zenuke jendea ikasketa hauek egitera?**

